

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdia egiten baita 2021eko bi urtekoen ikasgelen zerbitzuaren dirulaguntzak emateko

DDBN(Identif.): 578927

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/578927>).

Lehenengoa. Onuradunak

Eusko Jaurlaritzak homologatutako eta itundutako ikastetxe pribatuak, baldin eta Amurrioko udalerrian badaude eta bi urtekoen ikasgelen zerbitzua ematen badute.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da arautzea Amurrioko ikastetxe ez publikoetan bi urtekoen ikasgelen emateko hezkuntza zerbitzuak, betiere Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak aitortu eta baimenduta badaude.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntzen oinarri arautzaileak Aurrekontua Betearazteko Udal Arauaren VII. kapituluaren daude jasota, eta 2021eko maiatzaren 28ko ALHAOn argitaratu ziren. Haien artean dago 35. oinarria: bi urtekoen ikasgelen zerbitzuaren dirulaguntzak emateko oinarrien berariazko ordenantza.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 51.000 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea

Epea deialdia argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta hilabeteko epean amaituko da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Amurrio, 2021eko abuztuaren 6a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA